



EKAINEKO ESKOLA TXIKIEN FESTA GIROTZEN

Altzoko Imaz Bertsolaria eskolari egokitu zaio aurtengoan Jaia antolatzea; kanta eta arropak aurkeztu dituzte jada 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-05-25

VIII. URTEA 2.009. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Antolatzaileak «oso gustura» daude VII. Txirrita Mendi Ibilaldiarekin

ARALAR Amezketatik 390 mendizale irten ziren herenegun; itzulian zehar hamabi gailur zapaldu zituzten

OARGIELKARTEA Antolatzaileek esker hitzak izan dituzte parte hartzaile, laguntzaile eta boluntarioentzat 7



Igaratzako kontrol gunea atseden leku bilakatu zen VII. Txirrita Mendi Ibilaldian. A. IMAZ



Lopeneko oroitarriaren ondoan omendu zituzten kirolariak. A. BELAUZARAN

JONAN FERNANDEZ BAKETIK ZENTROKO ZUZENDARIA

«Ikaskuntzak gizakiaren esperientziak dira, balio pedagogiko handia dute»



KARLOS CORBELLA

TOLOSA 'Pertsona izaten hezi' goiburupean liburua kaleratu berri du ekintzaile tolosarrak 3

Atzo, gaur eta biharko kirolariak omendu dituzte

LEITZA Kultur Aroaren lehen egunean Lopeneko oroitarrian bildu ziren herritarrek 2

Hilaren 28an «errepresioaren aurkako» manifestazioa egingo dute

IBARRA Maite Aranalderen atxiloketa salatu zuten herenegun; Ertzaintza herriko plazara sartu zen 5

IMH ELGOIBAR ingeniaritza imh

Heziketa Zikloak / Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak: MAIATZAK 29 (11:00etan)

izena emateko: IMH, Auzoa Auzoa 1, Elgoibar. Tfnoa: 943764133 - imh@imh.es - www.imh.es

2010-2011 ikasturterako
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ile-apainketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eredu):
Apainketa Estetika pertsonala

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA, IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 · Tel.: 943-13 42 23 Faxa: 943-89 41 96
012291aa@hezikuntza.net · 20800 ZARAUTZ

Kultur Aste batzuk joan eta besteak etorri

Kultura » Atzo amaitu ziren Lizartza, Berrobi, Bedaio eta Irurako Kultur Asteak; Leitzan ekitaldi ugari dituzte aurretik.

ERREDAKZIOA

Kultur Aste batzuk hasi besterik egin ez direnean, beste batzuk eman beharrekoak eman dituzte. Atzo amaitu ziren Berrobiko, Lizartzako, Bedaio eta Irurakoak eta Leitzakoak berriz, hasi.

Lehendabiziko bietan, janaria izan zen protagonista atzo. Lizartzan Helduen Eguna ospatu zuten. Hala, herriko jubilatuak mahai inguruan elkartu ziren eta hamaiketako egin zuten goizean. Ondoren, pilota partidak izan ziren eta bazkaria. Egunari amaiera antzerki batekin eman zioten, Higaren *Enepoltsa eta biok* lanarekin.

Berrobin, txakolin dastaketa egin zuten, eta hau barrura sartzen laguntzeko, antxoilak eta gazta. 50 lagun inguru elkartu ziren udal-txe aurreko plazan. Bapo jan eta

edan ahal izan zuten Berrobikoek.

Iruran berriz, herriko dantzari txikiek emanaldia eskaini zuten eguerdian. Meza ostean egin zuten dantza herriko plazan.

Leitzan, hasi besterik ez

Kultur Aroko lehendabiziko eguna izan zen atzo Leitzan. Bertan, izan diren, diren, falta diren eta izango diren kirolari guzietan omenaldia egin zieten herritarrek. Lopeneko oroitariaren ondoan, Errolan harria haiei eskaini zieten. Omenaldian, herri kirolak ez ziren faltatu, eta jende ugari bildu zen meza ostean, ekitaldiaz gozatzeko.

Atzo, berriz, Isi Caballerok *El escandalo monumental* liburua aurkeztu zuen. Gaur, beste lan baten aurkezpena izango da, David Anauten lan sarituarena. *Argiak eta itzalak euskararen lurraldean* izena du honek. Ekitaldia Aurrera elkartearen izango da 20:00etan. Bihar berriz, Goizeder Urtasunen txanda izango da. 70ko hamarkadako langileen mugimenduko ikuspegi pertsonalean oinarritutako dokumentala erakutsiko du.



Bedaion Asteburu Kulturalean ospatu dute, eta ekitaldien artean, mendi irteera egin zuten atzo. HITZA

Bedaion asteburu bete

«Asteburu bikaina», horrela definitu dute bedaiotarrek pasa den asteburua. Larunbateko ajeak alde batera utzita, herenegun goizean Artubi elkartearen 25 laguneko taldetxo bat bildu zen eta mendian gora abiatu, Balardi azpitik, Urreako haitzetatik zehar Azkarate-runtz. Ondoren Zarateko lepoan, Gipuzkoa eta Nafarroako mugetan, atsedean hartu zuten. Azkenik, arratsaldean Sointek taldeak, haurrei eta ez hain haurrei saio atsegingarri eta «didaktiko» bat eskaini zien, musika tresna eta estiloen inguruan, dantza eta kantuen bidez.



Lizartzan, Helduen Eguna izan zen herenegungoa. SARA GOMEZ

Izaskungo Jaiei Txaramakoek hartuko die erreleboa, asteburuan

Aisia » Atzo amaitu ziren Ibarako auzoko jaiak eta ostiralean hasiko dira berriz, Txaramakoak; bi egun izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarako auzo bateko jaietatik, Txaramara igaroko dira festak aste honetan. Atzo amaitu ziren Izaskungo jaiak, eta ostiralean hasiko dira bigarrenak.

Atzo amaitu ziren Izaskun auzoko jaiak. Arratsaldean, Alurr



Alurr dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten atzo arratsaldean. E. EZBEZA

dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten. Zuhaitzen itzalpean, jende ugari hurbildu zen Ibarako haurrak ikusteko.

Asteburu honetan, Txaramako jaiak

Ostiral arratsaldean hasiko dira Txaramako Jaiak. 21:00etan botako dute Jaien hasiera iragartzen duen suziria, bainahonen aurretik, magia ikuskizuna eta elkarretaratzea egingo dituzte.

Ekitaldien artean, larunbatean herri afaria izango da. Menua ondorengo izango da: entsalada na-

» TXARAMAKO JAIAK

Maiatzak 28, ostirala

- **18:30.** Jon Magoaren ikuskizuna umeentzat, plazan.
- **20:15.** Euskal presoak etxera lelopean elkarretaratzea Txaramako plazan.
- **21:00.** Suziria jaurtiko dute Jaiei hasiera emateko.
- **Ondoren.** Barrikotea plazan. Jarrailan, mus eta bestelako karta jokoak.

Maiatzak 29, larunbata

- **11:00.** Suziria eta Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza saioa.
- **Ondoren.** Toka Txapelketa.
- **13:00.** Pintxo Lehiaketa. Bakotzak gutxienez sei pintxo berdin aurkeztu beharko ditu.
- **16:00.** Haurren jolasak eta jarrailan, txokolatada.
- **21:00.** Herri afaria. Giroa alaitzeko, Astiasaran trikitalarien saio, eta Jose Luis Gorrotxategi eta Imanol Lazkano bertsolariena.

hasia, foie saltsa goxoarekin, onddo pudina, arkume errea patatekin eta postre bezala, trufazko tarta. Afariaren prezioa 30 eurotako da. Joan nahi dutenek, gaur izango dute izena emateko azken aukera. Txaramako elkartearen egin dezakete hori edo ondorengo telefono zenbakietara deituta: 650 27 6510 edo 646 64 2267.

Laburrak

Ostiralean, Ohiko Osoko Bilkura egingo du Udalak

IBARRA » Udalak Ohiko Osoko Bilkura egingo du ostiralean, 09:00etan. Besteak beste, gai hauek jorratuko dituzte: Kreditu aldaketarako espedientea 1/2010, «geldikinak txertatzea» eta Kreditu aldaketarako espedientea, «Kreditu transferentzia».

Festa Batzordearen bilera izango da etzi arratsaldean

IBARRA » Etzi, iluntzeko zortzietan, festa batzordearen bilera izango da Udal Batzar aretoan. Hala, herritarrei dei egiten diete bilkuran parte hartzeko.

Ohiko Osoko Bilkura bihar 21:00etan

LEITZA » Bihar iluntzean, Udalak, Ohiko Osoko Bilkura egingo du. 21:00etan izango da bilera, eta bertan, besteak beste gai hauek jorratuko dituzte: taxien lizentzia behin betikoz esleitzea, zabor bilketarako kamioiak esleitzea, Erlerta eskolako gelak egokitze obraren behin-behineko esleipena, 2. poligonoko 38., 39., eta 54. lur zatia dagokion xehetasun azterlana behin betikoz onestea eta ogasun batzordearen ordezkoiak izendatzea.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

JONAN FERNANDEZ › Baketik zentroko zuzendaria

«Hezkuntzaren alorrean dugun bitarteko falta betetzera dator liburua»

Gizartea »

Hezkuntzaren inguruan kezkak dituen orori laguntzeko kaleratu berri du liburua; proiektuak formazio programarekin izango du jarraipena.

INIGO TERRADILLOS

Pertsona 'izaten' hezi liburua aurkeztu berri du Jonan Fernandezek (Tolosa, 1962). Baketik zentroan azken lau urteetan egin dutenaren ondorio bezala sortutako lana da. Gaur egungo gizartean hezkuntzaren alorrean atzemandako hutsuneari nolabaiteko erantzuna eman nahi diote liburuekin. Alderdi teorikoa da liburua eskaintzen duena, eta praktikoa, berriz, Baketik-en webgunean jarri duten Izan proposamena da. Orain sare bat sortzen ari dira proposamenaren parte hartu nahi dutenekin, eta hurrengo urten formakuntzari ekin nahi diote.

Zer da Izan proposamena?

Proiektuak bi zati ditu. Liburua da bat, eta edozein pertsonarentzat da. Bizitza, elkarbizitza edota hezkuntza bezalako gaien inguruan kezkak dituenarentzat aproposa da. Gero, beste alderdi praktikoa dago, Baketik-en web orrian topa daiteke. Liburuaren osagarria da, eta hori, bereziki, hezkuntza mundura zuzenduta dago.

Azken urteetan Arantzazun egin duzenaren hausnarketatik dator.

Ondorio bat da. Orain arte emandako ikastaro guztiek eta argitaratu ditugun bi liburuek esperientzia bat sortu dute, eta hortik beste eskaera bat sortu da. Hezkuntzaren eta pertsonaren inguruan zerbaitegin behar zela ikusi dugu.


Geure burua eta besteak pertsona izaten hezten irakatsi nahi duzue. Nola egiten da hori?

Aita, ama, irakasleari edota edozein pertsonari hezkuntza arloan denetarik jakitea exijitzen diogu, giza eskubideez, elkarbizitzaz, elkarlanaz, sufrimenduaz... Gauza horietaz nola hezi jakin behar da. Lehendabizi gu geu pertsona izaten hezteko da liburaren planteamendua, gai horiek lantzen jakin ahal izateko. Bigarren zatia, nolabait alderdi praktikoa da, hau da, besteak hezteko.

Hori guztia gai desberdinak landuz egiten duzue.

Ikaskuntzak deitzen diegu, baina gizakiaren ezaugarriak eta esperientziak direla esan beharko genuke. Balio pedagogiko izugarria dute, ibilbide luzea eta ahalera handia, horregatik deitzen diegu ikaskuntza. Hiru mailatan sailkatzen ditugu. Oinarrikoak, instrumentalak eta funtzioak.

Zeintzuk dira oinarrikoak, eta zergatik dira oinarrikoak?



KARLOS CORBELLA

Lau dira: gizakiaren izaera mugatua, esker ona, erabakiak hartu aurretik kontzientziari kasu egitearen esperientzia eta giza duintasunaren esperientzia. Norbere kontzientzia hartzeko eta norbere errealitate gehiago ezagutzeko lirateke lau ikaskuntza hauek, pertsona izateak berarekin dakartzanak.

Ikaskuntza instrumentalak leudeke ondoren.

Hurrengo hirurak dira, hau da, elkarrizketa, enpatia eta pazientzia dira. Gure eremutik atera, eta besteengana eta munduarengana jotzeko aukera ematen digute. Halaber, gure baitatik ateratzen gaituzte, eta bizikidetzarekin, haren zailtasunekin eta arazoekin jartzen gaituzte aurrez aurre.

Zein da funtsezko ikaskuntza edo esperientzia?

Maitasuna, oinarria eta, era berean, aterkia da. Guztia borobiltzen duena da, hasieran eta bukaeran dagoen ikaskuntza da. Izan ere, maitasuna oinarrian ez badago,

aurreko zazpi ikaskuntzak ezin dira gauzatu, eta alderantziz, maitasuna zabalatzeko, ezinbestekoak dira aurreko zazpi esperientziak.

Hezkuntzaren eta pertsonaren inguruan zerbaitegin behar zela ikusi zenuten. Zer hutsune nabaritu zenuten egungo gizartean?

Bai gizartean, bai hezkuntzan, bai eta familian ere, gauza asko erakutsi nahi ditugu, baina gauza horiek erakusteko bitarteko gutxi ditugula ikusten genuen. Esaterako, gazte bati edo gizarteari elkarrizketa inposaketa baino hobea dela esaten diegu. Baina, hori zergatik den horrela galdetu dezakete, eta gu saiatzeko gara hori nola arrazoitu eta justifikatu daitekeen ikusaraz-

ten. Guk esaten dugu zortzi ikaskuntza hauen bidez, eta batez ere, hasierakoak aintzat hartuta, bakoitza bere barrura begiratuta gai dela jakiteko zergatik elkarrizketa inposaketa baino hobea den, edo zergatik eskuzabaltasuna hobea den norberekeria baino.

Zergatik ditugu hutsune horiek?

Adibidez, gizakiaren izaera mugatua errealitate ukazina da, baina nonbait, ez da horrela gure gaur egungo gizartean. Mezu guztiak kontrakoak dira, hauda, dena posible dela esaten zaigu, eta ahaleginik eta frustraziorik gabe gainera. Bikoteko edo lagunaren arteko elkarbizitzan edota gatazka politikoak konpontzeko, berriz, mugak

jartzen dituzu edo ezingo duzu ulertu. Halaber, gaur egun ez dugu ezer baloratzen, ez duguna ez eta garena ere, eta ezin gaitzezke zoriotsu izan daukaguna baloratu gabe. Edota ezingo dugu elkarbizitza egoki bat eduki pertsona batekin ez baditugu baloratzen eta eskertzen bere baitan dituen baloreak. Horrelako hutsune ugari ditugu.

Eusko Jarlaritzak aurkeztu duen Bakerako Hezkuntza Plana zer iruditu zaizue?

Guk bi erreflexio egin ditugu: alde batetik planteatzen dute hemendik aurrera hezkuntza munduan biolentziaren deslegitimazioak

«Ikaskuntzak gizakiaren esperientziak dira, balio pedagogiko izugarria eta ahalera handia dute»

«Eusko Jarlaritzaren Bakerako Hezkuntza Planari bi ekarpen egin dizkiogu, hutsuneak ditu»

izan behar duela ikur nagusia. Guk diogu hori ona edo txarra den baloratu baino lehen biolentziaren deslegitimazioa zer den ondo zehaztu behar dela. Inork ez du zehaztu oraindik. Niri gertatu zait, esaterako, *Egunakaria*-ren aldeko foroan egoteagatik biolentzia legezkoztat jotzen dudala esatea. Beraz, ondo definitu behar da, eta horretarako adostasun soziala eta politikoa behar da. Hori egin arte ezin da eskolara eraman, hankasartze izugarria baita. Bigarrena, zera da, biktimak geletara eraman edo ez; guretzat, hori ere ez da gako, baizik ete zertarako eraman behar diren. Elkarbizitzarako, adiskidetzeko edota elkarrizketarako bada, horretarako testigantzak edukitzea egokia da, baina, bestela ez.

Liburua eta webgunean jarritako proposamenarekin bukatu al da proiektua?

Izan proposamenari sarrera bat emanez ikastaro bat eman berri dugu Arantzazun. Proposamena zer den eta nola funtzionatzen duen ikusi genuen, eta baita hori nola jarri daitekeen martxan eskola edo familia batean. Oso ondo joan zen. Sare bat sortzen ari gara proposamena martxan jartzeko interesa duten guztiak, eta datorren urtean formazio programa bat prestatuko dugu 8-10 larunbatetan zehar. Helburua sare horren bidez koordinatuak egotea eta dinamika bat sortzea da.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.
610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.
600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.
607 -25 42 40

Eskola Txikien festarako prestatzen

Altzo » Altzoko erraldoiaren parodia eskaini zuten gazteek eta Eskola Txikien festako abestia ere aurkeztu zuten.

ERREDAKZIOA

Eskola Txikien festa aurretik, prestaketa lanetan dabilta Altzoko guraso, ikasle, irakasle eta herri-tarrak. Larunbata horren lekuko izan zen.

Arratsaldeko bostetarako herriko plazan mugimendua nabarmena zen. Herriko gaztetxoak, ohol-tza gainean entseguak egiten aritu ziren.

19:00etan, Maixa Lizarribarrek eman zion hasiera ekitaldiari. Loatzokoek, Zaldibobo taldearen *Lurra* abestia eskaini zuten.

Ondoren, arratsaldeko animoak berotu zituen lehen ekitaldia etorri zen. Herriko gazteenek, Eskola



'Altzoko Handia' ikuskizuna eskaini zuten herriko gazteek. HITZA

Txikietako festan salgai izango diren arropekin desfilea egin baitzuten. Alurr dantza taldekoek eman zioten segida festari. Erakustaldia amaitzean, 2,42 metroko gizona lagun batzuk ondoan zituela, pla-

zan agertu zen. Altzoko erraldoiaren parodia eskaini zuten herriko gazteek. 150 urte atzera egin eta garaiako pertsonaiek bizia hartu zuten. Altzoko erraldoia, honen aholkulari Artzaun, Imaz bertsolaria,

Asteasuko itsua eta Jauregiko txanbolin.

Eskola Txikien festan egingo duten ekitaldiaren aurrerapena izan zen. Ekainaren 13an, gudi eta astoekin berriro itzuliko zirela esan zuten. Artzaunek plazan bildutako, Pello Errota berpiztu eta bertan izango dela agindu zuten.

Abestiaren aurkezpena

Ekitaldiari, abestiaren aurkezpenarekin eman zioten amaiera. Imaz Bertsolaria eskolako, ikasle, irakasle eta gurasoak, ohol-tza gainera igo eta abestia aurkeztu zuten. Eskola Txikien festarako sortutako abestia den arren, «Altzoko herriaren erabiliko den kantua» dela aipatu zuten antolatzaileek. Egunari amaiera, zahagi ardo eta afari herrikoiarekin eman zioten.

Ekainaren 13an da hurrengo zita garrantzitsua. Gipuzkoako Eskola Txikien festaren lekuko izango baita Altzo.

Laburrak

Mus Txapelketan izen emateko epea ireki da

TOLOSA » San Joan festak direla eta, Tolosako Iturriza Elkar-teak II. Mus Txapelketa antolatu du. 4 eta 8 erregeen modalitatean jokatuko dute parte hartzen dutenek. Ekainaren 16a bitartean egingo da zabalik izena emateko epea. Interesa duten bikoteek, Iturriza Elkar-terera hurbildu beharko dute goizeko 10:00etatik 12:00ak bitartean. Txapelketa ekainaren 23an hasiko da 10:30ean.

Paskualtxoren omenaldiko bazkaria Asteasun

ASTEASUN » Paskualtxoren omenaldia ekitaldiz gainezka dator ekainaren 6rako. Tartearen, bazkaria egingo dute. Horretarako txartelak salgai daude jada Tolosako Kantabriko Tabernan, Zizurkilgo Iriarte Jatetxean eta Asteasun Iturri-don. Helduen txartelaren prezioa 35 eurokoa da eta 14 urtetik beherakoa 8 eurokoa. Izena emateko azken eguna maiatzaren 30a izango da.

Txintxarri Abesbatzaren festarako bazkaria

ALEGIA » Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurreneko festa ekainaren 5ean egingo da. Goizetik hasiko da herriaren festa. Tartearen, bazkaria antolatu dute. Paella, postrea eta edaria, 10 euroren truke. Txartelak maiatzaren 30a bitartean izango dira salgai Kultur Etxean eta herriko tabernetan. Egunean bertan, txartelak ez da salduko. Bazkaria plazan egingo da eta eguraldi txarra bada, pilotalekuan.

Baliarraingo III. Frontenis Txapelketa

ERREDAKZIOA

Baliarrainen, hirugarren aldiz ospatuko dute Frontenis Txapelketa. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, segida eman nahi diote antolatzaileek kirol jarduerari.

Partidak jokatzeko bi astebukera aukeratu dituzte: ekainaren 19-20 eta 26-27, hain zuzen ere.

Mutilek, banakakoan jokatu dute. Neskek aldiz, binakakoan. Pasa den urtean, 50 mutilek hartu

zuten parte eta 6 neska bikoteek. «Aurten ere pasa den urteko parte hartzea» espero dute antolatzaileek. Ekainaren 4an bukatzen da izena emateko epea. Interesatuak, Tolosako Aralar Kirolak dendan edota Beasaingo Urrutia Kirolak izena eman behar dute eta 10 euro ordaindu behar dituzte. Azkenengo aste bukaeran egingo da sari banaketa: Txapela, kirol materiala eta Baliarraingo ostu-afariak.



III. Frontenis Txapelketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. HITZA

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaia eta Baskin-box ebe-entseguak.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.




Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIAREN harpidedunen artean. Eroski Bidaia-entseguak.

Orain, beste arrazoi bat BERRIAREN harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



16. Biatloieko protagonista gazteak

ZIZURKIL » Zizurkil goiko eta beheko ikasleak igandean bildu ziren, kirola aitzakia hartuta. Goizeko hamarretarako, 40 neska mutiko hurbildu ziren plazara, bizikleta eta kaskoa hartuta. Eliza eta plaza inguruko zirkuituari bueltak eman zizkieten. Korrika lehenengo

bizikletan gero. Eguraldia ere lagun, giro paregabea izan zuten plazan bildutakoek. Lasterketaren ondoren, hamaiketako egin zuten. Amaieran elastikoak jaso zituzten guztiak sari gisa. Urtero egiten da Biatlo herrikoia Zizurkilen, aurtengoa 16. aldian izan da. HITZA

Maite Aranaldereen atxiloketa salatu dute herrikideek

Ibarra » Hil honetako azken ostiraleko mobilizazioa berezia izango dela argitu dute; manifestazioa egingo dute.

ERREDAKZIOA

Maite Aranaldereen atxiloketa salatuzko prentsaurrekoa eskaini zuten herrian herenegun. 100 bat pertsona bildu ziren herriko plazan. «Hemen gauden lagunok Maiteren atxiloketa salatuzko bildugara, baita beresendiari elkartzasuna erakusteko ere», argitu zuten lehenik eta behin plazan bildutakoek, Ertzaintzaren presentzia «itogarria» lagun. Izan ere, prentsaurrekoa hasi baino lehen ertzaintzaren furgoneta bat zegoen plazaren inguruan. Behin agerraldia amaituta plazara sartu ziren.

«Ez da lehenbiziko aldia Maite atxilotzen dutela, lehenago ere espetxea ezagutua da. Errepresioak ez duela inolako irtenbiderik ekaritzen ozen adierazi nahi dugu; gatazkari irtenbidea emateko, berau sortzen duten arrazoiak konpondu behar direla, alegia», jarraitu zuten.

Bestetik, iragan astean herrian bizitako «jazarpen poliziala» salatu zuten. «Herritar bat atxilotzea nahiko ez eta bere askatasuna es-

katzeko antolatutako manifestazioak debekatuak izan dira. Tamainako erabaki errepresiboak salbuespen egoera batean ulertu daitezke soilik. Adierazpen askatasuna eta manifestazio eskubidea aldarrikatzen ditugu», esan zuten.

Azkenik, «mozkorraldi errepresibo hau eta oro har presoaren eskubide urraketak salatuzko», hilabetezko azken ostiralean egiten diren mobilizazioen baitan, aste honetakoan bereziki parte hartuzera deitzen zituzten ibartarrak. «Maiazak 28an, ostirala, *Eskubide guztien jabe, errepresiorik ez!* lelopean manifestazioa egingo dugu. 19:30ean abiatuko da herriko plazatik», argitu zuten.



Ertzaintzaren presentzia «itogarria» izan zen prentsaurrekoko egunean. HITZA



100 bat herritar bildu ziren herenegun plazan, prentsaurrekoa babesteko. HITZA

Laburrak

Nisa Goibururen bisita gidatua, ostegunean

TOLOSA » Aranburu Jauregian, Naturaldiaren baitan, Nisa Goibururen *Hala ere, natura gara* erakusketak ikusi daiteke ekainaren 12a arte. Egileak berak, gainera, bisita gidatuak eskaini izan ditu azken asteetan, baina aste honetarako egun aldaketa iragarri du. Asteazkena izan ordez, ostegunean, hilak 27, izango da 19:00etan.

Amarozko Hiri Ordenazio Plana, osoko bilkuran

TOLOSA » Tolosako Udalak ostegunean, hilak 27, 19:30ean osoko bilkura egingo du. Besteak beste, puntu hauek izango dituzte hipzide: 20.1 Amarotz paper-fabrika azpi-esparruko Hiri Ordenazioko Plan Bereziari behin-betiko onepena ematea, Arramele eta Kondeko Aldapako kale eta plaza berrien izendapenak onartzea eta 2009ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra onartzea. Aralarrek mozio bat ere aurkeztuko du.

Pablo Muñoz eta Paul Riosen mahai-ingurua

TOLOSA » Lokarri mahai-inguru zikloa burutuko du datozen asteetan *Nola sendotu bakerako aukera?* izenpean, Bruselako Adierazpen-rako atxikimenduak biltzeko kanpainaren baitan. Mahai-inguru hauetan Lokarriren eledun bat eta aztertzaile politiko bat izango dira. Tolosan ostegunean 19:30ean Kultur Etxean izango da, eta bertan Pablo Muñoz, Diario de Noticias taldeko zuzendaria, eta Lokarriko Koordinatzailea den Paul Rios izango dira.



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Leitzako
Iruso jatetxean
2 pertsonentzako
otordua



Iruso Ostata
Arkiskil, 14 Leitzalarreko errepidea
3880 Leitza
Tel. 948 397035


② Disko sorta

Diska sorta bat
(Travellin' Brothers, Bill Lyerly
eta Mikel Gaztelumendi)



③ Liburu sorta

Liburu sorta bat
(1936ko Gerrako Oroitzapenak,
Itzalean
eta Loiolako Hegiak)



④ Elastikoak

Realaren igoeraren
bi elastiko



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

E Emaizak

PILOTA

Gipuzkoako Herria Arteko Txapelketa, final laurdenak

OIARTZUN-ALEGIA (ITZULERAOKA)	
Kadeteak	22-11
Jubenilak	22-12
Nagusiak	22-13

*3-0 galdue ostean Txapelketa-tik kanpo gelditu da Alegia.

Nafarroako Herri Arteko Txapelketa, ligaxka

UHARTE ARAKIL-LEITZA	
Alebinak	3-18
Infantilak	0-18
Jubenilak	17-22
Nagusiak	22-17

*3. jardunaldia hilaren 26an, bihar, Leitzako Amazabalen 18:00etan. Uharthe-Iruñiaren aurka.

Elgetako Txapelketa

Jon Jaunarena (Aurrera)	22
Peñas	17

Herrerao Txapelketa

KADETEAK	
X. Jaunarena-M. Hernandezoren	22
-	10

Nafar Jokoak

BENJAMINAK	
J. Eskudero-N. Eskudero	16
Oberena D	18

ALEBINAK

J. Illarregi-B. Billabona	2
Zugarralde F	18

INFANTILAK

Iñaki Saralegi-Mikel Eraso	18
Zugarralde H	10

A. Eskudero-A. Garziarena	18
Bi Aizpe	15

KADETEAK

Joxerra Aldaregia-Ibai Gil	22
Cantolagua	12

Xabi Eraso-Lenitz Galartza	19
Esteribar	22

FUTBOLA

Erregional Ohorezko Maila	
Real Union-Tolosa CF-	1-0

SAILKAPENA

1. Zarautz (72 p.); 2. Aurrera de Ondarroa (68 p.); 3. Pasajes (65 p.); 4. Tolosa CF (57 p.)

1. Erregionala Igoera Fasea

Amaroz-Asoleus 3-3

SAILKAPENA

1. Kostkas-Miren Bihotza (43 p.); 2. Alerru (41p); 3. Mariño (40p); 7. Amaro (12p.)

Hernani-Intxurre KKE 1-2

SAILKAPENA

1. Irun (43p.); 2. Sto. Tomas Lizeoa (40 p); 3. Mondragon (37 p); 4. Intxurre (33 p.)

ARETO FUTBOLA

Nazional B Maila

Transp. Lakunza-Jarrilerros	7-5
Laskorain-Allerru Algeposa	0-2

SAILKAPENA

1. Alerru Algeposa (72p); 2. Laskorain Ikastola (67p.); 3. Concepto-Creatch (61p); 10. Transportes Lakunza (34p.)

SOKATIRA

Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketa, Getxo-Faduran

680 KILOTAN, AZKEN JARDUNALDIA	
1. Gaztedi	13 tanto
2. Goiherri A	13 tanto
3. Mutriku	9 tanto
4. Getxo	6 tanto
5. Areso	3 tanto
6. Goiherri B	0 tanto

AZKEN SAILKAPENA

1. Gaztedi; 2. Goiherri A; 3. Mutxiku; 5. Areso.

*Hilaren 29an 640 kiloko txapelketa hasiko da Areson, 17:30ean.

TXIRRINDULARITZA

EUSKADIKO TXAPELKETA, JUNIORRAK

1. Dorleta Eskamendi (Tolosa CF)
3. Irene Usabiaga (Tolosa CF).

*Biharko zenbakian, Araxesko Sari Nagusiaren berri.

TRIATLOIA

I. Zierbenako Triatloa

EMAKUMEZKOAK	
1. Itsaso Leunda	2:38:53



Anoetako kiroldegiko xake partidak. HITZA

Tolosako Xake Txapelketa hilaren 29an

ERREDAKZIOA

Maiatzeko igandean Kutxako Xake Topaketen sailkapen fasea jokatu da. Topaketa hauek Gipuzkoako ikasleei zuzenduta daude eta taldeka jokatu dira. Eskualdeak alebin mailako zonakoa antolatuta du aurtin ere, eta iaz bezala. Anoetako Abraham Olano kiroldegian jokatu dira partidak. 7 taldek hartu dute parte eta oso joko polita ikusi ahal izan da. Azkenean Tolosa-Ibarra B eta Billabona B izan dira finalerako sailkatu direnak.

Infantil mailan ere hartu dute parte eskualdeko ikasleek. Tolosa-Ibarra A eta Billabona A izan dira lehen fase honetan jokatu dutenak. Donostiako zonakoa jokatuta behar izan dute eta nahiko ondo aritu dira bi taldeak, finalerako sailkatu baitira. Finala ekainaren 13an izango da, Donostian.

Bestalde, datorren larunbatean, maiatzak 29, xake azkarreko Tolosako Txapelketa jokatuko da. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango da, Tolosako Xake Elkarteak Berdura plazan duen egoitzan.



Laskorainek ez du helburua lortu eta ihes egin dio txapelak eta igoerak

ERREDAKZIOA

Areto futbol festa ederra bizi izan zen pasaden larunbatean. Txapela eta igoera jokoan, Nazional B-ko lehenengo eta bigarrenaren arteko neurketak jende andana bildu zuen Usabalgo harmailatera eta bi zalegoek sorturiko giroa aparta izan zen.

Laskoraindarren zatitza okerrena azken emaitza izan zen, 0-2. Emaitza honekin talde horitxoak agur esan zion txapelari eta igoerari. Playoff-a ere ez du jokatu, Arnedo errioxarra izan baita azkenean bigarren sailkatu onena.

Golaukera bakanak izan ziren bi atean, baina txapelketako bi atezain onenek ez zuten hutsik egin.

Bigarren zatiaren erdian eta 0-0 markagailuarekin, etxekoan arrisku maila handitzen hasi zen. Lehendabizi defentsa igo zuten presina aurkariaren kantxa erdian kokatuz, minutu batzuk aurrerago, Zlatan Elola kantxaratu zuten, horitxoek egoera zailetarako duten lata-irekigailua, eta azkenik, bi minuturen faltan, atezain jokalaria.

Txapela bi minututara eta gol bakar batera zegoen, atezain jokariaren esku. Momentu erabakior honetan kanpotarren defentsak oso sendo iraun zuen eta horitxoaren estrategia erraz menperatu zuten. 0-1ko minutu baten faltan etorri zen eta ondoren bigarrena.

Allerrutarren algar horitxoaren negarraren sinonimoa zen eta jokari horitxoek buru makur amaitu zuten partida. Baina burua tentetu beharra dago, gauza positiboekin gelditu, horretatik asko egon da eta aurtengoa denboraldian. Inoiz baino urrutiago iritsi dira eta larunbateko partida sekula ahaztu gabe, disgustua bai ahaztu behar dutela lehenbailehen. Alonso lesionatua ere gogoan izan zuten.

U Urteurrena

I. urteurrena

IDOIA GOENAGA ALBERDI

Oroituz zure begi urdinetan utzi gaituz penetan bizirik zaude benetan gure amets eta bihotzetan.



Ordizia izeba-osabak eta lehengusuak Iraitz eta Eñaut

ORDIZIA
2010eko
maiatzaren 25a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Hamabi gailur, 390 mendizale

Mendia» Txirritaren omenezko VII. Ibilaldian, 390 mendizale irten ziren Amezketatik herenegun; lehenak itzulia 12:50ean amaitu zuen.

ASIER IMAZ

Oargi Elkarteko kideak «oso gustura» gelditu dira VII. Txirrita Mendi Ibilaldiarekin. Parte hartzaileei, laguntzaileei eta boluntarioei eskerrak eman nahi izan dizkie eskaintako guztiagatik. Eguraldi ederra ere azpimarratu dute

antolatzaileek: «asko lagundu baitu dena oso ondo joan zedin».

Igaratzen, atsedena

Amezketatik 390 mendizale irten ziren herenegun 06:00etan. «Batzuk tiroa bezala irten dira»; «Gorrena igande batean goizeko

05:00etan esnatzea izan da. Go-runtz hastea ere ez da erraza izan»; «Ordu erdi berandu iritsi denik ere izan da»...

Esamesen artean jendea txor-txor hasi zen puntarik punta goz-tzen eta sufrizten. Putterri igo aurretik, 24. kilometroan, etxera joateko erabakia hartu zuenik ere izan zen. Ondoren orde, Igaratzako kontrol gunea zetorren eta mendizaleak amaiera hurbil ikusten hasi ziren. Oihu, irrintzi eta adar hotsak entzuteko aukera ere

egon zen Igaratzen. Amaierarako 15 kilometro inguru eta lau tontor gelditzen ziren oraindik.

Gurutze Gorriaren postuetan arazo muskularrekin eduki zituzten lanik handienak. Hala eta guztiz ere, badaezpada, Gurutze Gorriko bi kidek Ibilaldi guztia egin zuten.

Azken tontorra Txindokiko gaina zen. Ondoren Amezketarako jaitsiera. «Azkenaldapa ezagutzen genuen eta lasai hartzea pentsatu dugu. Beherantz hankek asko su-

fritu dute». 45 kilometroak amaitu ondoren, lehen mendizale-korrikalaria 12:50ean iritsi zen Amezketara. Ondoren tantaka-tantaka heldu ziren gainontzekoak.

Txirritaren omenezko zazpigarren mendi itzulia diploma eta kamiseta banarekin amaitu zuten parte hartzaileek. Sariak ere banatu zituzten eta dutxatu nahi zuten Amezketako udaletxean zuen horretarako lekua. Askorentzat berriz, saria amaierako garagardo freskoa izan zen.



Igaratzako atsedendaldia; Gurutze Gorriko bi kide Ibilaldian barrena eta amaierako garagardo freskoa. A. IMAZ

Bi mendizale 45 kilometroko itzulia egin ondoren, Txindoki begira dutela. A. I.



Pardarrira bidean partaideak. Irudiaren behealdean txakurra fresko, nagusia nekatu antzean. A. IMAZ

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan 12€

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen www.berria.info harpidetza@berria.info 943-30 43 45

Laguntzaileak: FAGOR

AUKERTA EZZUZAL DUTZA EUSKARAZKO berria



24°
14°

GOIZA LAINOTUTA
ARRATS. EURIA
BEROENA 19°
HOTZENA 11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Eskoletatik kanpora ere euskaraz egiteko konpromisoa

Irura » Herriko AEK euskaltegiko ikasleak Villabonan elkartu ziren afari ederra egin eta bide batez, euskaraz egiteko.



AEK euskaltegiko ikasleak Villabonan afaldu zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Euskaraz egiteko eta zer esanik ez euskaraz bizitzeko, garrantzitsua da eskolez gain, eguneroko bizitzan euskaraz egitea. Horixe da Irurako AEK euskaltegiko ikasleek egin zutena orain gutxi.

Venezuelako jakia

Ikasleak ohiko ikasgelatu eta Villabonako Ubane elkartearen bildu ziren afaltzeko. Bertan, «Carmen nahiz Josebaren aholkuei jarraituz», Venezuelako plater tipiko bat nola prestatzen den ikasi zuten, Hallaca izenekoa, hain zuzen.

Batez ere Gabonetan jan ohi dute Hego Amerikako estatu honetan, eta bere osagai nagusiak honako hauek dira: artirin eta arrautzez egindako orea, haragi eta ba-

razki ezberdinez egindako gisatua, mahaspasak, piper gorriak eta oli-bak. «Guztia platano hostoan bildu ondoren, soka fin batzuen bidez lotu eta uretan egosi egiten da», argitu dute euskaltegiko arduradunek.

Argazkian ikus daitekeen itxura ederraz gain, zaporea ere bikaina omen du aipatu jakia. «Gainera, eskolatik kanpo ere euskaraz aritzeko helburuan beste urrats txiki bat eman eta oso iluntze atsegina igaro genuen», argitu dute.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 09:30-20:30 / Lanuratsuetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emata orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

Aberriaren 15 (1989) Lege Oinarria. Datu Pertsonalak Babesteko, beteak, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregio dituen eskaintzen berri emateko. Zure eska dago izenburu, zuzenbide, ezarritako eta kontratuetako eskubideak erabiltzeko. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.L.-Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Hauspoa eta tekla kontzertua Udal Musika Eskolako aretoan 19:00etan, Salvador Parada eskusoinjolea eta Arkaitz Mendoz pianistarekin.

Hitzaldia

■ **Leitza.** Kultur Astea: *Argi eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi-gozo* Dabid Anauten lan sarituaren aurkezpena Aurrera elkartearen 20:00etan.

Deialdiak

■ **Leitza.** Bermeon maiatzaren 30ean ospatuko den Ibilaldirako autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Elkarteak. Autobuseko txartelaren prezioa 12 eurokoa da, bazkideek berriz, 10 euro ordaindu behar dituzte. Tren geltokitik aterako da autobusa 09:00etan eta 19:00etan itzuliko da. Izena Galtzaundin eman behar da.
■ **Ibarra.** Bihar, asteazkena, 18:30ean Subegin elkartearen inguruko batzarra egingo dute.

Mendi-irteerak

■ **Tolosa.** Maiatzaren 28etik 30era Formigal-Barazil arroila jaisiera irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea, 943-67 56 12 eta 688-69 86 42 telefono zenbakietan egin daiteke.
■ **Villabona.** Maiatzaren 30rako Arangaitz-Lakarri (Zuberoa) mendi irteera antolatu du Aizkardik, Lexarra (1.034 m), Auski, Arhansus lepoa (935 m), Ugatze lepoa (1.137 m), Beloskare (1.137 m) eta Bostmendieta (1.120 m) igoz

(24 km, 6 ordu). Izen-ematea, 649-71 71 82 telefono zenbakian (20:00etatik 22:00etara) edo elkartean bertan egin daiteke.

■ **Ibarra.** Maiatzaren 30erako Donibane Garazira (Beha Nafarroa) mendi irteera antolatu dute Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak. Izen-ematea, ohiko tokietan.

Aisialdia

■ **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak aurten ere ludoteka antolatu du 3-10 urte bitarteko haurrentzat uztailearen 1etik 30era bitarte, 9:00etik 13:00era, astelehenetik ostiralera: jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria... Izena emateko epea ekainaren 1tik 18ra, 9:30etik 13:30era, Galtzaundiko egoitzan (943-65 50 04).

Azoka

■ **Villabona.** Ekainaren 4an Bigarren Euskuko Azoka ospatuko da Villabonako Barazki plazan 17:00etatik 21:00etara, Aste Berdearen baitan. Euren jabetzak salgai jarri nahi dituztenek bere udaltxerara deitu beharko dute hilaren 31 baino lehen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamari, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AROTZERI ETA ALTZARI FABRIKAZIO ikasketak



AUREMATRIKULAZIOA MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 1 IRA

Zatuz ezagutzera
(instalazioak, makinaria, laborategia . . .)

ATE IREKIAK:

- Maiatza 27 osteguna arratsaldeko 6:00 tatik aurrera
- Maiatza 29 larunbata goizeko 10:00 tatik aurrera
- Beste egun batean nahi izanez gero deitu aurrera

UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA
Altamira ozuoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel. 943 852174/943 851507